



Zumaiako Udala



2023EHIT0002-HI23/00005

ZUMAIKO UDALAREN ETA LARRAINA EUSKARA ELKARTEAREN ARTEKO HITZARMENA

Zumaian, 2023ko martxoaren XXan

BILDUTA

Alde batetik, Iñaki Ostolaza Esnal (NAN 72443977A zenbakiduna), Zumaiako alkatea eta Udalaren ordezkaria (IFK P2008700C, Foruen plaza 1, Zumaia).

Eta bestetik, Ibon Manterola Garate (NAN 15392596F zenbakiduna), Larraina euskara elkartearen izenean eta haren ordezkaria (IFK G10621704, Juan Belmonte 43, Zumaia.)

Bi aldeek hitzarmen hau xedatzeko legezko gaitasun nahikoa dutela onarturik,

ADIERAZTEN DUTE:

1.- Larraina euskara elkarteak Zumaian euskara sustatzeko sortutako elkarteak da. Elkarte pribatu eta irekia da, bertan edonork har dezake parte eta ez dauka irabazi asmorik.

2.- Larraina elkartearen helburuak honako hauek dira: Zumaian euskararen erabilera sustatzea, Euskarak 365 egun ekimena eta izaera bereko beste batzuk bideratzen laguntzea; Euskaraldia bultzatzea, Hitzaldi zikloa antolatzea, euskal kultura herritarren artean zabaltzea, euskarari dagokionez, Zumaiako herritarrak sensibilizatzea.

3.- Larraina euskara elkarteak hainbat jarduera egingo ditu urtean herrian euskara sustatu eta erabilera bultzatzeko asmoz.

4.- Elkarteak herriko berezko hizkuntzaren alde eta irabazi asmorik gabe egiten duela ikusita, Zumaiako Udalaren iritziz interes sozial handikoa da. Zumaiako Udalarentzat lehentasun handikoa da euskararen sustapena eta jakitun da kasu askotan Udaletik bertatik egin ezin dena egin litekeela herrigintzatik elkarte baten bitartez.

Horregatik guztiagatik bi aldeek hitzarmen hau sinatzea erabaki dute, klausula hauen arabera:

Dokumentu kod.	2023EHIT0002-HI23/00005
CUDO kodea	000.0081.AAAAD0X4.H.MI5j
Dokumentu Egiaztatzailea Verificador de documentos	https://uzf.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/81/AAAAD0X4H.MI5j



KLAUSULAK

Lehena. Helburua

Hitzarmen honen helburua da Larraina euskara elkarteari (IFK: G-10621704) helburuen artean euskara eta euskal kultura sustatzea duenari, 2023 urtean aurrekontuan onartutako diru-laguntza izenduna ematea. Zumaiako Udaleko diru-laguntza plan estrategikoan 5.eranskinen D ataldean jasota dagoen eta Udaleko jarduketa lerroetariko bat den euskara eta euskal kultura sustatu eta zabaltzeko helburuarekin bat etorrita.

Bigarrena. Zumaiako Udalaren betebeharrak

2.1.- Zumaiako Udalak 2023ko aurrekontuetan Larraina euskara elkartearen aldeko diru izendapena jasoko du.

2.2.- Zumaiako Udalak 2023an Larraina euskara elkarte lagunduko du diruz, euskaren sustapenaren aldeko ekintzak aurrera eramateko. Lan hauetarako 10.000 euroko laguntza emango dio Udalak Larraina euskara elkarteari.

2.3.- Diru ekarpen horiek bi epetan ordainduko dira: lehen ordainketa (% 70) hitzarmena sinatu eta berehala egingo da; eta, bigarren ordainketa (% 30), berriz, urteko txostena eta kontu zuriketa guztiak aurkeztu ondoren, guztiak ere honako partida honetatik: 1 0200.481.335.10.02 2023 (450)

Hirugarrena. Larraina euskara elkartearen betebeharrak

3.1.- Larraina euskara elkarteak Zumaian euskara sustatzeko urteko ekintza plana diseinatu eta garatzeko konpromisoa hartzen du. Horrez gain, dokumentu, publizitate, argitaratutako informazio, irudi edo material orotan, baldintza hauek bete beharko ditu: hizkuntza modu ez-sexistan erabiltzea; emakumeenganako edozein irudi diskriminatzaile nahiz estereotipo sexista saihestea, eta berdintasun balioak, presentzia orekatua, aniztasuna, erantzukidetasuna, eta rol aniztasuna eta genero identitateak jasoko dituen irudia sustatzea (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzko 4/2005 Legean ezarritako printzipioari jarraituz).

3.2.- Larraina euskara elkarteak konpromisoa hartzen du euskararen sustapen arloan Zumaiako Udalaren ekimenetan aktiboki parte hartzeko eta harekin

Dokumentu kod.	2023EHIT0002-HI23/00005
CUDO kodea	000.0081.AAAAD0X4.H.MI5j
Dokumentu Egiaztatzailea Verificador de documentos	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/81/AAAAD0X4H.MI5j



Zumaiako Udala

2023EHIT0002-HI23/00005

elkarlanean jarduteko. Bai eta urtean hainbat ekintza bere gain hartzeko, betiere euskararen sustapenaren arlokoa bada.

3.3.- Euskararen sustapen arloaz aparte, beste edozein arlotan Zumaiako Udalak herriko elkarteen beharra duenean ere Larraina euskara elkarteak horietan parte hartuko du Udalarekin elkarlanean.

3.4.- Urteko bigarren eta azken ordainketa egin aurretik, 2024ko urtarrilaren 15a baino lehen, Larraina euskara elkarteak diruz lagundutako ekintza guztien memoria zehatza aurkeztu beharko du, dagozkion faktura eta ordainagiriekin batera, bai eta galdu-irabazien kontua ere.

3.5.- Zumaiako Udalak nahiz beste edozein administrazioek eskatzen dituen datuak edo behar adina informazio osagarri ematea.

3.6.- Zerga betebeharrak eta gizarte segurantzari egindako ordainketak egunean izatea.

3.7.- Inoiz ez da emango helburua lortzeko behar den diru kopurua baino dirulaguntza handiagorik. Horretarako, Udalak emandako dirulaguntzaz gain, kontuan hartuko dira beste administrazio edo erakunde publiko eta pribatuek xede horretarako emandakoak bai eta helburu bera lortzeko beste edozein diru sarrera edo baliabide ere.

3.8.- Larraina euskara elkarteak konpromisoa hartzen du urtean gutxienez 3 aldiz Udaleko euskara zerbitzuko teknikariarekin bildu eta ekimenak elkarrekin adosteko, bai eta elkartearen nondik norakoak azaltzeko ere.

3.9.- Larraina euskara elkarteak ez da berariaz agertzen dirulaguntza hau behar diren datuak egiaztatzearen aurka. Beraz, Zumaiako Udalak NISAE nodoa eta beste administrazio batzuen bitartekaritzarako plataforma zerbitzuen bidez egiaztatuko du, batetik, Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuan zerga betebeharrak egunean dituela elkarteak, eta, bestetik, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorreko betebeharren ordainketak egunean dituela. Elkarteak horri uko egingo balio, berak aurkeztu beharko lituzke aipatutako baldintzak egiaztatzeko agiriak.

Dokumentu kod.	2023EHIT0002-HI23/00005
CUDO kodea	000.0081.AAAAD0X4.H.MI5j
Dokumentu Egiaztatzailea Verificador de documentos	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/81/AAAAD0X4H.MI5j



Laugarrena. Hitzarmena ez betetzea eta hitzarmena deuseztatzeko arrazoiak.

4.1.- Larraina euskara elkarteak betebeharren bat betetzen ez badu, edo emandako dirulaguntza beste helburu batzuetarako erabiltzen badu –Udal honek bideratutako espedienteen horrela adierazita geratzen denean–, Udalarari itzuli beharko dio lortutako dirulaguntzaren zenbatekoa.

4.2.- Hitzarmen hau deuseztatzeko arrazoiak hauek izango dira:

- a) Hitzarmena izenpetutako bi aldeen adostasuna.
- b) Larraina euskara elkarteak hitzarmen honetan adierazitako betebeharrak ez betetzea.
- c) Bi aldeetako edozeinek salaketa jartzea, bi hilabete lehenago berariaz adieraziz gero.
- d) Indarrean dagoen legediaren arabera, hitzarmenak eragindako beste edozein arrazoigatik.
- e) Epai irmo baten bitartez, aukera berdintasunaren arloan, arau hauste larriagatik zigortu izana (SPKLTBaren 60.1 artikuluan eta Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eraginkorrerako 3/2007 Lege Organikoaren 14. Xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera).

Bosgarrena. Indarrean jartzea eta iraunaldia

Hitzarmen hau bi aldeek sinatzen duten egunean sartuko da indarrean, eta urtea amaitu arteko iraunaldia izango du. Indarrean egongo da gaur egungo aurrekontu baldintzek bere horretan jarraitzen badute.

Seigarrena: Dirulaguntzaren araudi juridiko aplikagarria.

- Zumaiako Udalaren dirulaguntzak emateko Ordenantza Arautzaile Orokorra (2020ko abuztuaren 11ko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 151. zk.).
- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, dirulaguntzen lege orokorra.

Hitzarmenarekin ados daudela adierazteko, bi aldeek dokumentu honen bina ale sinatzen dute efektu bakarrerako, goian adierazitako leku eta egunean.

Iñaki Ostolaza Esnal
Zumaiako alkatea

Ibon Manterola Garate
Larraina euskara elkarte

Dokumentu kod.	2023EHIT0002-HI23/00005
CUDO kodea	000.0081.AAAAD0X4.H.MI5j
Dokumentu Egiaztatzailea Verificador de documentos	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/81/AAAAD0X4H.MI5j